UDAL EUSKALTEGIA

# ARRIGORRIAGAKO UDAL EUSKALTEGIKO ARTEZKARITZA BATZORDEKO AKTA

# ACTA DEL CONSEJO RECTOR DEL ORGANISMO AUTÓNOMO ARRIGORRIAGAKO UDAL EUSKALTEGIA

| **Ohiko bilera** | **Reunión ordinaria** |
|---|---|
| **Eguna** / Día: | **2023/10/18** |
| **Deialdia** / Convocatoria: | **Lehena** / Primera |
| **Hasiera ordua** / Hora inicio: | **13:20** |
| **Amaiera ordua** / Hora finalización: | **13:45** |

**Bertaratutakoak** / Asistentes:

| | | |
|---|---|---|
| **Presidente delegatua** / Presidente delegado: | Gorka Etxebarria Elordui | EH-BILDU |
| **Batzordekideak** / Vocales: | Gotzon Ajuria Fisure | EAJ-PNV |
| | José Ignacio Fernández Grajera | NOA |
| | Josune Zamalloa San Miguel | Zuzendari akademikoa |
| **Bertaratu ez direnak** / Ausentes: | Maite Barahona Díaz | Udal talde sozialista |
| | Iratxe Rubio Gil | A.GARA |
| | Ander Alonso Lopez | HABE |
| | Nerea González Méndez | Ikasleen ordezkaria |
| **Idazkari delegatua** / Secretaria delegada: | Begoña Ealo Agirre | |

IFZ: P4800044B

## 1.- AURREKO BILERAREN AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA (2023-07-11).

Artezkaritza Batzordeak aldeko 14 botorekin (EH-BILDUren 7, EAJ-PNVren 6 eta NOAren 1) aurreko bileraren akta onartzea erabaki du.

## 1.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA REUNIÓN ANTERIOR (11-07-2023).

El Consejo Rector por 14 votos a favor (7 de EH-BILDU, 6 de EAJ-PNV y 1 de NOA) acuerda aprobar el acta de reunión anterior.



Urgoiti pasealekua 55, 2.a • 48480 Arrigorriaga • Tel. 944002060 • www.arrigorriagakoeuskaltegia.eus

**2.- PRESIDENTE DELEGATUAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.**

Artezkaritza Batzordea 2023ko 25. zenbakitik 31.era bitartean hartutako ebazpenen jakinaren gainean geratu da.

**2.- DAR CUENTA DE LAS RESOLUCIONES DEL PRESIDENTE DELEGADO.**

El Consejo Rector se da por enterado de las resoluciones dictadas por el presidente delegado desde la número 25 hasta la 31 del año 2023.

**3.- ZUZENDARI AKADEMIKO BERRIAREN IZENDAPENAREN BERRI EMATEA.**

Artezkaritza Batzordea Miren Josune Zamalloa San Miguel zuzendari akademikoaren izendapenaren jakinaren gainean geratu da. Izendapen hori 2023ko urriaren 1etik 2025eko irailaren 30era arte izango da.

**3.- DAR CUENTA DEL NOMBRAMIENTO DE LA NUEVA DIRECTORA ACADÉMICA.**

El Consejo Rector se da por enterado del nombramiento de Josune Zamalloa San Miguel como directora académica desde el 1 de octubre de 2023 hasta el 30 de septiembre de 2025.

**4.- IDAZKARI DIDAKTIKO BERRIAREN IZENDAPENAREN BERRI EMATEA.**

Artezkaritza Batzordea Itziar Arteagoitia Alonso idazkari didaktikoaren izendapenaren jakinaren gainean geratu da. Izendapen hori 2023ko urriaren 1etik aurrera izango da.

**4.- DAR CUENTA DEL NOMBRAMIENTO DE LA NUEVA SECRETARIA DIDÁCTICA.**

El Consejo Rector se da por enterado del nombramiento de Itziar Arteagoitia Alonso como secretaria didáctica a partir del 1 de octubre de 2023.

**5.- 2023-2024 IKASTURTEAN OSATUTAKO TALDEEN BERRI EMAN.**

Artezkaritza Batzordea 2023-2024 ikasturtean osatutako taldeen jakinaren gainean geratu da. Hona hemen taldeen laburpena:

**5.- DAR CUENTA DE LOS GRUPOS FORMADOS PARA EL CURSO 2023-2024.**

El Consejo Rector se da por enterado de los grupos formados para el curso 2023-2024, siendo los que se detallan a continuación:

| Lokala | Taldea | Moduloa | Ordutegia | Maila | Hasiera | Bukaera | Ordu teorikoak | Matrikulak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| *1* | 1 | 7 / 9 / 10 | 09:30-12:00 | A0A0 | 2023/10/02 | 2024/06/28 | 250 | 10 |
| *1* | 2 | 7 / 9 / 10 | 19:00/21:30 | A0A0 | 2023/10/02 | 2024/06/27 | 250 | 14 |
| *1* | 3 | 10 / 9 / 10 | 09:30/12:00 | A2A2 | 2023/10/02 | 2024/06/27 | 330 | 8 |
| *1* | 4 | 10 / 9 / 10 | 09:30/12:00 | B1B1 | 2023/10/02 | 2024/06/27 | 330 | 10 |
| *1* | 5 | 10 / 9 / 10 | 16:30/19:00 | B1B1 | 2023/10/02 | 2024/06/27 | 330 | 9 |



Urgoiti pasealekua 55, 2.a • 48480 Arrigorriaga • Tel. 944002060 • www.arrigorriagakoeuskaltegia.eus

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| *1* | 6 | 10 / 9 / 10 | 19:00/21:30 | C1B2 | 2023/10/02 | 2024/06/27 | 330 | 10 |
| *1* | 7 | 5 / 9 / 10 | 16:30/19:00 | C1B2 | 2023/10/02 | 2024/06/26 | 165 | 9 |
| *1* | 8 | 2 / 9 / 10 | 11:00/12:00 | A0A0 | 2023/10/03 | 2024/06/04 | 60 | 12 |
| *1* | 9 | 2 / 9 / 10 | 12:00/13:00 | A1A0 | 2023/10/03 | 2024/06/04 | 60 | 15 |
| *2* | 10 | 2 / 9 / 10 | 12:00/13:00 | A0A0 | 2023/10/03 | 2024/06/04 | 60 | 15 |
| *2* | 11 | 2 / 9 / 10 | 11:00/12:00 | A1A0 | 2023/10/03 | 2024/06/04 | 60 | 12 |
| *1* | 12 | 2,5/9/10 | 13:00-15:15 | A0A0 | 2023/10/02 | 2024/05/29 | 72,5 | 6 |
| | | | | | | | 2.297,5 | 130 |

Josune Zamalloak, zuzendari akademikoak, ikasturte honetarako osatutako taldeen berri eman du, baita horien osaera eta ezaugarriak eta irakasleek eman beharreko eskola-orduak ere. Gainera, ikasturte honetarako osatu diren Berbalaguneko hiru taldeak ere aipatu ditu.

Josune Zamalloa, directora académica, da cuenta de los grupos formados para este curso, su composición y características, así como las horas lectivas a impartir por el profesorado. Además, también menciona los tres grupos de Berbalagun que se han formado para este curso.

EAJ-PNVko ordezkari Gotzon Ajuriak esan du, gaur egun D ereduan ikasten duten pertsonek titulazioak dituztela kontuan hartuta, ikasleen profila aldatu egin dela, euskara ikasteko motibazioa aldatu den bezala; horregatik, erretiratuen taldeak osatzeko joera agerikoa da, beste motibazio mota bat dutelako, hala nola bilobei laguntzea. Era berean, gaineratu du migratzaileen kolektiboa ere azter litekeela euskarazko ikastaroak eskaintzeko. Bestalde, positibotzat jotzen du berbalagun taldeak osatzen jarraitzea.

Gotzon Ajuria, representante de EAJ-PNV, comenta que, teniendo en cuenta que hoy en día las personas que estudian en modelo D salen con titulaciones, el perfil de alumnado ha cambiado al igual que la motivación para estudiar euskara, de ahí que la tendencia a formar grupos de jubilados es evidente ya que tienen otro tipo de motivación como ayudar a los y las nietas. Asimismo, añade que quizás el colectivo de migrantes también se podría analizar para ofrecer cursos de euskara. Por otro lado, también considera positivo que los grupos de berbalagun sigan formándose.

Gorka Etxebarria presidente delegatuak adierazi du sektoreko egungo egoeraren erradiografia dela. Aipatutako kolektiboei dagokienez, esan du bere garaian merkatariena aztertu zela, baina ez zela talderik ateratzea lortu, eta migratzaileei dagokienez, haiekin lan egiten duten pertsonek dioten bezala, ez dela erraza euskara ikastera hurbiltzea, egoera zailak bizi dituztelako eta beste lehentasun batzuk dituztelako.

Gorka Etxebarria, presidente delegado, señala que, en efecto, es una radiografía de la situación actual en el sector. Respecto a los distintos colectivos mencionados, comenta que en su día ya se analizó el de los y las comerciantes pero no se logró sacar ningún grupo, y respecto al de personas migrantes, tal y como dicen las personas que trabajan con ellas, no es fácil que se acerquen a estudiar euskara, ya que viven situaciones difíciles y tienen otras prioridades.



Urgoiti pasealekua 55, 2.a • 48480 Arrigorriaga • Tel. 944002060 • www.arrigorriagakoeuskaltegia.eus

**6.- 2022-2023 IKASTURTEKO MEMORIAREN BERRI EMATEA.**

Artezkaritza Batzordea 2022-2023 ikasturteko memoriaren jakinaren gainean geratu da.

**6.- DAR CUENTA DE LA MEMORIA DEL CURSO 2022-2023.**

El Consejo Rector se da por enterado de la memoria del curso 2022-2023.

**7.- 2023KO IRAILAREN 13KO PRESIDENTZIAREN EBAZPENAREN BIDEZ ONARTUTAKO FAKTUREN BERRI EMATEA.**

Artezkaritza Batzordea presidente delegatuak F72023/6 fakturen zerrenda onartzeko ebazpenaren jakinaren gainean geratu da, zenbatekoa 1.541,61 eurokoa da.

**7.- DAR CUENTA DE LAS FACTURAS APROBADAS POR RESOLUCIÓN DE PRESIDENCIA DEL DÍA 13 DE SEPTIEMBRE DE 2023.**

El Consejo Rector se da por enterado de la resolución del presidente delegado para aprobar la relación de facturas F/2023/6, y cuyo importe asciende a 1.541,61 €.

**8.- 2023. URTEARI DAGOKION LAN-SARIEN BIGARREN IGOERA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.**

Arrigorriagako Udal Euskaltegia erakunde autonomoko langileen ordainsariak % 0,5 igotzeko proposamena aurkeztu da, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19.Bi.2a) artikuluan adierazitakoaren arabera.

Funtzio Publikoaren Estatuko Idazkaritzaren 2023ko urriaren 4ko Ebazpenaren bidez, 2022ko KPIaren eta 2023ko iraileko KPI aurreratuaren batura 2022ko eta 2023ko ordainsari-igoera finkoen batura baino handiagoa dela berresten da, hau da, % 6 baino handiagoa; beraz, 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei % 0,5eko gehieneko ordainsari-igoera gehigarria aplikatu behar zaie.

Honenbestez, Artezkaritza Batzordeak aldeko 14 botorekin (EH-BILDUren 7, EAJ-PNVren 6 eta NOAren 1) honako hau onartzea erabaki du:

**Lehenengoa:** Arrigorriagako Udal

**8.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LA SEGUNDA SUBIDA SALARIAL PARA EL EJERCICIO 2023.**

Ante la propuesta presentada para el incremento del 0,5 % en las retribuciones del personal del organismo autónomo Arrigorriagako Udal Euskaltegia conforme a lo señalado en el artículo 19. Dos.2 a) de la Ley 31/2022, de 23 de diciembre, de presupuestos generales del estado para el año 2023.

Considerando que mediante la Resolución del 4 de octubre de 2023, de la secretaría del Estado de Función Pública, se confirma que la suma del IPCA del 2022 y del IPCA adelantado del mes de septiembre de 2023 es superior a la suma de los incrementos retributivos fijos de 2022 y 2023, esto es al 6%, por lo que procede aplicar el incremento retributivo adicional máximo del 0,5% sobre las retribuciones vigentes a 31 de diciembre de 2022.

Por todo lo anterior, El Consejo Rector por 14 votos a favor (7 de EH-BILDU, 6 de EAJ-PNV y 1 de NOA) acuerda:.

**Primero**: Incrementar el 0,5 por ciento en



Urgoiti pasealekua 55, 2.a • 48480 Arrigorriaga • Tel. 944002060 • www.arrigorriagakoeuskaltegia.eus

Euskaltegia erakunde autonomoko langileen ordainsariak % 0,5 handitzea 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsarien aldean, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

las retribuciones del personal del organismo autónomo Arrigorriagako Udal Euskaltegia respecto de las retribuciones vigentes a 31 de diciembre de 2022 y con efectos de 1 de enero de 2023.

**Bigarrena**: ordainsarien igoerak, dagozkien atzerapenak barne, arrazoi teknikoengatik posible den lehen nominan ordain daitezen xedatzea.

**Segundo**: Disponer que los incrementos retributivos, incluidos los atrasos correspondientes, se hagan efectivos en la primera nómina que por razones de índole técnica resulte posible.

**Hirugarrena**: Arrigorriagako Udal Euskaltegia erakunde autonomoko lanpostuen zerrendan egindako aldaketa onartzea, erabaki hau aplikatu ahal izateko, eta zerrenda hori gauzatzearen ondoriozko berariazko osagarriak sartzea.

**Tercero**: Aprobar la modificación de la Relación de Puestos de Trabajo del organismo autónomo Arrigorriagako Udal Euskaltegia en orden a la aplicación de este acuerdo, incorporando los complementos específicos resultantes de la ejecución del mismo.

**ARRIGORRIAGAKO UDAL EUSKALTEGIA ERAKUNDE AUTONOMOAREN 2023KO LANPOSTU ZERRENDA**

RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO 2023 DEL ORGANISMO AUTÓNOMO EUSKALTEGI MUNICIPAL DE ARRIGORRIAGA

| **Kod.**<br>Cod. | **Izena**<br>Denom. | **Eskala**<br>Escala | **Azpie.**<br>Subes. | **Titulazioa**<br>Titulación | **Egoera**<br>Situación | **ZE**<br>FP | **Taldea**<br>Grupo | **KH**<br>CD | **LIBO 2023**<br>CEPT 2023 | **HE**<br>PL | **DD**<br>FP |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 01 | **Irakasle titularra**<br>Profesor/a titular | **Admin. Berezia**<br>Especial | **Teknikaria**<br>Técnica | **Diplomaduna edo graduko Unibertsitatea titulua**<br>Diplomado o Título universitario de grado | **Beterik**<br>Cubierta | **C** | **A2** | **17** | **24.251,20** | **4** | **TG**<br>TP |
| 02 | **Irakasle titularra**<br>Profesor/a titular | **Admin. Berezia**<br>Especial | **Teknikaria**<br>Técnica | **Diplomaduna edo graduko Unibertsitatea titulua**<br>Diplomado o Título universitario de grado | **Beterik**<br>Cubierta | **C** | **A2** | **17** | **24.251,20** | **4** | **TG**<br>TP |
| 03 | **Irakasle titularra**<br>Profesor/a titular | **Admin. Berezia**<br>Especial | **Teknikaria**<br>Técnica | **Diplomaduna edo graduko Unibertsitatea titulua**<br>Diplomado o Título universitario de grado | **Beterik**<br>Cubierta | **C** | **A2** | **17** | **24.251,20** | **4** | **TG**<br>TP |
| 04 | **Irakasle titularra**<br>Profesor/a titular | **Admin. Berezia**<br>Especial | **Teknikaria**<br>Técnica | **Diplomaduna edo graduko Unibertsitatea titulua**<br>Diplomado o Título universitario de grado | **Hutsik**<br>Vacante | **C** | **A2** | **17** | **24.251,20** | **4** | **TG**<br>TP |
| 05 | **Administrari lag.**<br>Auxiliar administrativa/o | **Admin. orokorra**<br>General | **Laguntz.**<br>Auxiliar | **Eskola-graduatua, LH I, DBH**<br>Graduado Escolar, FPI, ESO | **Beterik**<br>Cubierta | **C** | **C2** | **15** | **26.413,32** | **3** | **00/12/29**<br>29/12/00 |

(1) **Irakaskuntzako zuzendaritza-lanek 1.940,72 euroko osagarria dute urtean. Erantzukizun administratiboko lanen kasuan, osagarria 3.880,74 eurokoa da urtean.**
El desempeño de las funciones de dirección académica conlleva la percepción de un complemento de 1.940,72 €/año. En el caso de las funciones de responsabilidad administrativa el complemento asciende 3.880,74 €/ año.



Urgoiti pasealekua 55, 2.a • 48480 Arrigorriaga • Tel. 944002060 • www.arrigorriagakoeuskaltegia.eus

**Laugarrena**: Akordio hau Arrigorriagako Udalari bidaltzea, Osoko Bilkurak onar dezan.

**Cuarto**: Remitir este acuerdo al Ayuntamiento de Arrigorriaga para su aprobación plenaria.

**9.- FAKTUREN ZERRENDAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.**

**9.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LA RELACIÓN DE FACTURAS.**

Artezkaritza Batzordeak aldeko 14 botorekin (EH-BILDUren 7, EAJ-PNVren 6 eta NOAren 1) fakturen zerrenda onartzea erabaki du, zenbatekoa 1.262,72 eurokoa da.

El Consejo Rector por 14 votos a favor (7 de EH-BILDU, 6 de EAJ-PNV y 1 de NOA) acuerda aprobar la relación de facturas, cuyo importe asciende a 1.262,72 euros.

**10.- NORBERAK LEKARKEENA.**

**10.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

Ez da ezer aipatzen.

No se presenta ningún punto.

Horrela bada, bilera amaitutzat jo da eta guztiaren akta jaso da.

Se da por finalizada la reunión, extendiéndose la presente acta.

Arrigorriagan, 2023ko urriaren 19an

PRESIDENTE DELEGATUA

arrigorriaga
UDAL EUSKALTEGIA

IDAZKARI DELEGATUA



Urgoiti pasealekua 55, 2.a • 48480 Arrigorriaga • Tel. 944002060 • www.arrigorriagakoeuskaltegia.eus